

# Mercè Panyella, Sandra Martínez

CUIDEM LLUÇANES  
KOOPERATIBAKO KIDEAK



## FRUSTRAZIOA ETA PASIOA

Sandra Martinezen hitzetan, “trabak daude eta errealtatea frustragarria da hainbatetan. Gestorian negarrez amaitu nuen egun batean, asmo onez beterik ari zarela eta sistemak zapaldu egiten zaituelako sarri, baina bide zidorrak asmatzen goaz, aurrera segitzeko. Egia da egunerokoa ero samarra dela, dena koadratzea eta puztze lana ongi egitea, eta bilatzen dugun gertatutasuna mantentzeak ere denbora eskatzen duela; koordinazio lana adibidez ez baitut paper gainean egiten, langileok elkar entzuten dugu, baten eta bestearen etxean eztabaidatzen dugu kafe bat hartuz... baina nire pasioa dira harreman pertsonalak. Pasiarik gabe ez ginatke halako zerbaitetan sartuko”.

## “Esan didatenean 'zu zara nagusia', itzuli egin diet ardura hori”

Olatukoop sarearen baitan, emakume migratzaileentzako zaintza lanen kooperatiba sortu nahian dabilta Hiritik At, Talaios eta Parean elkarte irundarrak. Bide horretan informazioa eta eztabaida zabaldu asmoz, jardunaldiak antolatu ditu Olatukoopek eta beren esperientzia kontatzera gonbidatu dituzte Mercè Panyella eta Sandra Martínez Díaz, Cuidem Lluçanes Kataluniako zaintza kooperatibako kideak.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

### Noiz eta nola jaio zen kooperatiba eta zein unetan zaudete orain?

**M. Panyella:** Lluçanes eskualdean bizi gara; oso eskualde txikia da: 400 kilometro koadrotan sakabanatuta dauden hamahiru herri, guztira 7.500 biztanle. Bertako partzuergotik azterketa bat egin zen eta ikusi zuten eskualdean emakume ugari zegoela langabezia edo beltzean lan egiten, baita biztanleria zahartzen ari zela ere, eta proposatu zen zaintzan eta garbiketan oinarritutako kooperatiba sortzea. Duela kasik bi urte izan zen hori.

**S. Martínez:** Partzuergoaren laguntzaz, hamar laguneko talde bat jo eta su aritu ginen bederatzik hilabetez, eta bidean aholkularitza jasota, duela urtebete inguru zerbitzu kooperatiba sortu genuen. Sei pertsonak osatzen dugu kontseilu errektorea eta zazpi langile ari dira kontratu bidez lanean, horietatik bi kontseilu errektoreko kideak gara (ni koordinatzaile ari

naiz, behar izanez gero garbitzera ere joaten naiz, eta kontseiluko presidentea familia-langile aritzen da). Kontseilu errektoreko kide izateagatik ez dugu inork ezer kobratzen eta langile bakoitzak lanaldi erdia kobratzen du, baina puntualki norberak dituen beharren eta sartu nahi eta ahal dituen orduen arabera pixka bat aldatu daiteke ordu eta diru kopurua.

**MP:** Helburua da etorkizunean denak bazkide izatea, baina horretarako hileroko bakoitzarentzat 400 euroko gutxieneko bat segurtatu behar dugu lehenengo. Oraingoz, batzuk langile huts dira, beste batzuk langile eta kooperatibako bazkide eta beste batzuk bazkide baina ez langile.

**SM:** Izan ere, kontsumitzaile-bazkide figura ere badaukagu: zerbitzu bat jaso nahi dutelako hileroko 20 euroko kuota bat ordaintzen duten Lluçaneseko biztanleak dira, 180 bazkide guztira. Horietako batzuek gure zerbitzuak jasotzen dituzte, beste hain-



IRUDIAN, BATZAR KONSTITUZIOGILEA. PEDAGOGIA LAN HANDIA EGIN BEHAR DELA DIOTE ELKARRIZKETATUEK, ZAINZTA LANETAN ARITZEN DIRENAK PREKARIETATERA DAUDELAKO OHITUTA, "AGINDUAK JASO ETA TXINTIK EZ ESATERA, BATEZ ERE MIGRATZAILEAK DIREN EMAKUMEEN KASUAN".

bat egin dira bazkide etorkizunean zerbitzuok jaso nahiko dituztela pentsatzen dutelako, eta bada proiektuan sinesten duelako bazkide egin denik ere.

**Jardunaldien izenburuak dio: "Elkar zaintzeko kooperatzen dugu? Generoa, zaintza lanak eta migrazioa". Elkarrizketak ohi dira generoa, zaintza eta migrazioa. Zuenen ere hala al da?**

**SM:** Ia denak emakumeak gara, bai. Gizon bat dugu kontseilu errektorean eta beste bat haurrak eskolara laguntzeko eskaintzen dugun zerbitzuan, baina ditugun beste bi zerbitzuetan, garbiketa lanetan eta zaharren zaintzan, emakumeak dira langile guztiak. Eta horietako bi migratzaileak dira.

**MP:** Lan feminizatua da zaintza, baliorik ematen ez zaiona, betitik emakumeek etxean egina, edo beltzean egiten dena.

**Prekarietatea eta esplotazioa ere lotzen ditugu zaintza lanekin. Horren aurrean, zer ematen dizue kooperatibak?**

**MP:** Hasteko, gurean zaintza bi norabidetan doa: zerbitzua jasotzen duenaren zaintza eta langileon arteko zaintza, norbere egoera pertsonala, kontziliazioa, beharrak... kontuan hartuz.

**SM:** Egiten dugun horretan aitortuak, errespetatuak eta zainduak sentitu gaituzela langile guztiok. Eta bestela agian izango ez litzuketen eskubideak ere ematen

den dizkie kooperatibak emakume langileei. Bestalde, kooperatibaren filosofia barneratzea ez da denentzat erraza, ez delako kooperatiba mundutik datorren jendea eta pedagogia asko egin behar da. Prekarietatera daude ohituta, aginduak jaso eta txintik esan gabe bete behar izatera, beltzean lan egitea da eurentzat normalena eta konfiantza falta sortzen die hasieran gurea bezalako proiektuak. Adibidez, lan harremanak aldatzeko zailtasunekin egin dugu topo, hierarkiekin, batez ere migratzaileak diren emakumeen kasuan: "Zu zara nagusia, zuk erabakitzen duzu" esan izan didatenean, itzuli egin diet ardura hori; "zerbitzu hau atera da, egin nahi duzu? Nik ez dizut lana antolatuko, zuk erabaki". Noizbehinka beraiekin batera aritzen naiz garbitzen. Finean, berdinen arteko harremana da, baina hainbati zaila egin zaio ulertzea.

**Eta lortu duzue erabakimen eta ardura horiek bere egitea langileek?**

**SM:** Bai. Langileetako bati esaterako beste lan bat eskaini diote, ordu gehiago eta diru gehiago, eta ezetz esan du, hain gustura dago enpresa molde honetan. Orain gehiago inplikatzeko dira, euren sentitzen dutelako kooperatiba, euren ere badela ulertzen dutelako. Dena ongi joan dadin kezka eta ardura dutela agerikoa da.

**Ahalduntzeko tresna ere bada kooperatiba, orduan.**

**SM:** Erabat. Hasieratik dugun helburua

da eta indarkeria matxista jasan duten emakumeak ahalduntzeko taldeak ere baditugu. Izan ere, zerbitzuen eskaintza zabaltzen joan nahi dugu: dolua lantzeko taldeak, migratzaileentzako katalan ikastaroak...

**MP:** Beti ere, pertsonak zaintzea izanik eskaintzen ditugun zerbitzuen abiapuntua. Hasieran adibidez, enpresetan garbiketa lanak eskaintzea genuen buruan, eta probatu genuen, baina ikusi genuen ez zihoala gure filosofiarekin bat, ez genuela hori nahi. Gauza bat da etxe batean sartu eta bizitzaz beteta dagoen etxe hori garbitzea, lan hori egin ezin duen horri laguntzea, eta beste bat enpresa handi bateko hostasunean aritzea. Probatu genuen eta ez zuen funtzionatu; enpresa eta negozio txikietan, familiarretan bai, garbitzen dugu.

**Txikitik aritzea nahiago duzue, hortaz.**

**SM:** Enpresa handi bihurtuko bagina, hurbileko tratua hori galduko genukeela uste dut eta hori ez da nahi duguna. Hiri handiagoetan aritzeko eskaintzak izan ditugu, baina ez da gure ideia. Bizi garen landa eremuko neurrirra pentsatutako kooperatiba da gurea. Gainera, bezeroarenganako tratuan ere nabari da landa eremukoak garela, erraza da bizilagunaren etxera sartu eta harremanak behar bezala zaintzea. Oraindik ate joka gabiltza: bisita egiten diegu zerbitzuaren kontsumitzaile izan daitezkeen, haien etxetara goaz solastatzera. Menpekotasuna asumitzea ez da erraza, eta landa eremu honetan, *payés* base-ritarrei maiz are zailagoa zaie laguntza onartzea. Lan hori ere egin behar da.

**Nola ulertzen duzue zaintza?**

**MP:** Guretzat zer bait sakona da, pertsona artatzen harago doana, eta aldi berean, modu xumean ulertzen dugu. Begiradan dago gakoa, besteari nola begiratzeko diodan, ume nahiz zahar berdinak berdinera, parekoa minusbaliatu ordez.

**Zuen hitzaldian, zein mezu helarazi nahi diozue Euskal Herriko jendeari?**

**MP:** Zaintza kooperatiba batek gai batzuei irtenbidea bilatzen diela, baina ez denei, hainbat gai legal eta politikori ezingo diogulako aurre egin. Hala ere, hobe da sinesten dugun horretan aurrera egitea, eta behar izanez gero, desobediencia izan.